

Darcy Hennesseyk,

Euskal Herriko lauburu bizi handienaren bila

Aurtengo Inbiu Egunean, hilak 19, euskerearen aldeko beste erronka bat eroango da aurrera 12:00etatik aurrera. Lasarte parkean 11.000 hazi eta landaregaz egindako obra txikerrak batuta, Euskal Herriko lauburu bizirik handiena egin gura da, denporeagaz hazten eta parkean integretan joango dana. Erronkea bete orduko herri bazkaria eta arrastian zehar herri-kirolak, musikea, txistorrea eta sagardoa be egongo dira. **5. orrialdea**



Gorbeia Suzien, beste urte batez eliteko mendi korrikalarien topaleku

Zeanuriko mendi jardunaldiaren hamairugarren edizinoa hilaren 26an ospatuko da, 32K Skyrace eta 21K lasterketen inguruan. Merrell Skyrunner Worl Series-erako puntuagarria izanda, *trail running*-aren munduko izen ezagunenek korriduko dabe Gorbeia bideetatik. Betiko lez, egun osoko jai itzela izango da Zeanurikoa. **11. orrialdea**



ARRATIA

Intxortako gudari arratiarrei omenaldia Elgetan

1936an, gudari arratiarrak heroi bilakatu ziran Intxortatik faxistak bota ebezanean. 90. urteurrena gogorazoteko asmoagaz, Elgetako herriak arratiar hareentzako omenaldia eta batailearen erre-presentazioa antolatu dau urri bigarrenaren 4rako. **7. orrialdea**

ARTEA

Merkartea, baserritar eta artisauen alkargune

Hilaren 19an ospatuko da aurtengo Merkartea, baserritar zein artisauen hamazortzina postugaz. Merkadua bakarrik ez, egun osoko jaia izango da musikeagaz, jantza eta antzerkiagaz, kirolagaz eta jai giro itzelagaz buztartuta. **7. orrialdea**

ARRATIA

Sanmigelak auzoz auzo

San Migelen omenezko ermita ugari dagoz gurean eta beraz, jaiak be ospatuko dira auzo askotan. Zeanuriko Uribe eta Alzustan, Igorreko Garbe eta Mikelen, Bediako Jauregi-Yeurin eta Arteako Elexabeitin egongo dira ospakizunak. **13. orrialdea**



Gida Baimenak
Animalia Arriskutsuak
Nautika
Arma lizentziak
Segurtasun pribatua
Garabiak

ORDUTEGIA
Asteazken eta ostegunetan
09:00 - 13:00
Astelehen, astearte eta ostegunetan
16:00 - 20:00

www.psicotecnicoganguren.eus - 611 72 88 55
info@psicotecnicoganguren.eus

Literatura txokoa

EHULEAREN HILOBIA

Firu finak josi dau istorio motz hau; itxuraz, narratzaileak baino ikusten ez dauana.

Funtsean, zahartasunak dakarzan oroimen hutsune larriak, gainbehera fisikoagaz batera -egile-a sano gazterik (38 urteaz) zendu bazan be- azaldu gura deuskuz idazlan honen bidez, oroimena ez dala fidagarria, labur esanda.

Hil barri dan ehulearen ehorz-gune zehatza non kokatzen dan argitzea bada be kontakizunaren ardatz nagusia, bigarren mailako personaia biren artean dizdiz egiten dauan erakarren sentimenduaren hasiereagaz narrazioari itxaropen izpiak agertuko jakoz, hain egoera ilun eta atsekabea izanagaitik aldikadatan, ze hila

jagokon leku zorrozki egokituan etxun ezean, haren arima alde-rraiak betiko jazarriko deusie protagonistei. XIX eta XX. mendeen bueltan Eire errepublikako herrixka ziztrinean, katolizismoaren guardasol pean herri-tarrei darien Jaungoikoaganako apaltasun eta begiruneak estalita, inguru deskribapena eta sentipen artean lotura maisuki egin deusku O'Kellyk, han-hor-hemen iradokizunak, denporearen joanak itxitako lorratz txikerren zerrenda eta abarrez zipriztinduz.

Txitean-pitean umore fineko geziak jaurtingo deuskuz, ostera. Berbarako: "...Moisesek lurraren kontra Mandamentuak -erabat txikituz- lehenengo edizino baten inozko suntsiketarik tragikoena"

edo "...epopeia guztietan bezala, hasitako leku berean amaitu zan eztabaidea".

Bestalde, heriotz-hurra eta heriotzeari berari gizalege zorrotza erakutsiko deutso, eta bide batez harridura darion amesetan biziko balira lez.

Gainera, garrantzia xumeagoa daukan beste tesi bat be orrietara dakar idazle, kazetari eta antzerkigile irlandarrak. Zera, era otzanean agertzen diran arren, eleberriko enbra bien erabakigarritasuna eta zentzuna nagusitu egiten da agure kakapirri eta liskarzaleen gainetik.

Aspalditxo amatau zan haren herrialdean, baita danonean be, seguramentean, doinu eta usain hori, urteak joan eta urteen eto-



Seumas O'Kelly
Itzultzailea: Unai Elorriaga

Ehulearen hilobia

Igela argitaletxea, 2026
Jatorrizkoa 1919

104 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK	Larrialdiak Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00 SOS DEIAK 112	Zeberio: 94 500 67 95 Udaletxeak Arantzazu: 94 631 56 89 Artea: 94 673 92 05 Areatza: 94 673 90 10 Bedia: 94 631 42 00 Dima: 94 631 57 25 Igorre: 94 631 53 84 Lemoa: 94 631 30 05 Ubide: 945 45 03 22 Zeanuri: 94 673 91 46 Zeberio: 94 648 10 79	Bizkaibus 94 612 55 55 3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era. Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Atzen zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.	Obxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordukin behin. Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordukin behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordukin behin. * 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira. Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.	13:05, 15:30, 20:40. Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean. Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean. Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10. Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.
	Guardiako farmaziak 09:00etatik 22:00etara Urri lehenengoaren 14tik 20ra Badiola. Artea. Herriko Plaza 7 Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048 22:00etatik 09:00etara Goiria Montoya (12-18). Amorebieta-Etxano. Urri lehenengoaren 21etik 27ra Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27 Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154 22:00etatik 09:00etara Melero (19-25). Amorebieta-Etxano. Urri lehen. 28tik urri bigarren 4ra Goikoetxea. Dima. Ugarana 33 Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057 22:00etatik 09:00etara Sarasketa (26-2). Amorebieta-Etxano. Zeberioak ez dau guardiarik egiten. Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara Cometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri. Tel.: 94 449 05 87	Arratiako Udalen Mankomunitatea 94 631 17 17 mankomunitatea@arratia.eus Gorbeialde Landa Garapenerako Elkartea 94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com Gertu bulegoa Igorre 94 406 80 00 Areatzako Parketxea 94 673 92 79 Igorreko Kultur Etxea 94 673 62 51 kulturetxea@igorre.net Lemoako Kotxepin Kultur Etxea kotxepin@lemoa.eus Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus Areatzako Notariotza 94 673 92 26 Errota Fundazioa 688 854 543 info@errota.eus Arratiako Musika Eskola 94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu	3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino. Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro. Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro. 3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro. Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20ra orduro. Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro. 3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,	3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik) Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzunik. Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00retan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzunik. 3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20. *Basauriraino bakarrik. Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20. *Artearaino bakarrik. Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40. Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00. Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan:	La Union 94 427 11 11 A3712 linea. Bilbo-Gasteiz Lanegunetan: 06:45ean urteten dau Bilbotik. Zapatuetan: 08:45ean urteten dau. Domeka eta jaiegunetan: 10:30ean urteten dau. A3712 linea. Gasteiz-Bilbo Lanegunetan: 15:15ean urteten dau Gasteizetik. Zapatuetan: 16:30ean urteten dau. Domeka eta jaiegunetan: 16:30ean urteten dau. Eskualdeko garraioa. Erreserbak 945 18 20 60 6A linea. Otxandio-Legutio Lanegunetan: Ubiden 06:35ean, 07:15ean, 09:20an, 11:20an, 14:45ean, 15:25ean, 17:15ean eta 20:25ean. Astegoi eta jaiegunetan: 08:45ean, 11:55ean, 16:40an eta 18:40an. 6A linea. Legutio-Otxandio Lanegunetan: Ubiden 09:05ean, 11:05ean, 14:30ean, 15:10ean, 17:00etan, 20:10ean eta 21:15ean. Astegoi eta jaiegunetan: 10:35ean, 13:40an, 18:25ean eta 21:30ean. Lotura Gasteiz-Durango 18 lineagaz.
	Medikuak Arantzazu, Artea, Areatza, Dima, Igorre eta Zeanuri: 94 600 74 63 Bedia eta Lemoa: 94 600 68 85 Ubide: 945 45 50 17				

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta kudeatzailea:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Ager Barragan. **Webgunearen arduraduna:** Ager Barragan. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Maketazinoa:** Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Irantzu Basterretxea (Dima), Mikel Madrazo (Igorre), Mikel Alonso (Arantzazu, Areatza eta Artea), Aimar Arandia (Bedia eta Lemoa), Irati Urien (Ubide), Kepa Artaraz (Zeanuri) eta Mikel Lazaro (Zeberio). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria, **Instagram:** @begitu.eus, **Mastodon:** @begitu, **X:** @BegituEus **YouTube:** @BegituAldizkaria

Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daiteke, beti be iturria aitatz eta egileza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatzeko.

Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derri gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hau xe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkeror, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

ALKARREGAZ



Lamino Kirol Kluba

Lamimo Kirol Kluba 13 urteko bizitza daukan eta adin guztietako hainbat bazkidez (160-200 urtearen arabera) osotutako alkarte da. Ibilbide honetan ugariak izan dira alkarteak antolatutako mendi urtekerak, esku-pelota txapelketak, berbaldiak, kirol ikastaroak, Areatzako mendi martxak, orientazio probak, herri lasterketak eta beste hainbat jarduera. Laminoren helburu nagusia mendizaletasuna batez be eta beste edozein kirolen praktikea suspertzea da, beti be herrigintzea, bizikidetzeta, alkartasuna eta herriko belaunaldi desbarden arteko hartumona bultzatuz. Eredutzat, Areatzako Mendi Martxearen antolakuntzea; bere bitartez, gure herriko txoko ezkutuek eta euren toponimia ezetuarazoten dira eta bertararte dagozan bide publikoak zabaltu eta garbi mantendutea lortuten da, urtero herriko txoko barriren bat erakutsiaz. Laminok antolatutako edozein mendi urtekeratan, Pirineo zein Picosera, Palentzia edo Euskal Herriko edozein tontorretara, giro ezinhobea, umorea, garagardoa, barreak eta kidetasuna dira ezaugarri nagusiak.

ERETXIA

Nork inbadiduten dau nor?

“Migratzaileak gu inbadidutera datoz”, “migratzaile inbasinoak”. Lehenengo eta behin, pertsona gabiz, ez daigun ahaztu; eta bigarrenik, berba gitxigaz definitu daiteke munduaren iparraldean mota honetako esaldiak entzutea: hipokresia, etnozentrismoa, ezjakintasuna eta errazakeria. Hipokresia bai, hipokresia da berba nagusia. Historiak erakusten dauana esaldi horreetatik oso urrun geratzen da-ta.

1914an Europako herrialdeek Afrikako lurraldeen % 90a baino gehiago kontrolatzen zuten. Europak ia Afrika osoa kolonizatu eban. Espainiak Ginea menperatu eban 1968ra arte, kakao, egur eta kafe produktzioa bereganatuz; herritarrei baldintza eskasak emoten eutseezan bitartean. Horrez gain, Espainiak Mendebaldeko Sahara kontrolatu eban 1975era arte. Hau labur azaldu daiteke: Historian zehar Europa Afrika inbaditu dau.

Halanda be, gaur egungo egoera besterik ez da aztertu behar esaldi horreen zentzubakokeria agerian ixteko. 1798tik gaur egunera arte Ameriketako Estatu Batuek 400 esku-hartze eta eraso militar baino gehiago egin ditu atzerrian; gehiengoak Latinoamerikan, Afrikan eta Asian. Eraso gehienak hegoaldeak jaso ditu.

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko eta London School of Economics-eko 2024ko ikerketaren arabera, iparraldeak bilioi 2 dolar baino gehiagoko baliabideak eta 800.000 milioi lanordu hartzean deustaz hegoaldeari, prezio oso bajaran. Hartu esaten danean, kendu esan beharko litzateke. Kendu, bai. Pertsonak esplotetan ditue euren lan indarra erabiliaz, eta ostean eurak eskuz egindakoak iparraldera errotan ditue. Are gehiago, ez deustee inolaz be horren orde merezi dabena emoten; eurentzako izan beharko litzatekeena be poderedunek hartzean dabe. Horri, Karl Marx-ek gainbalioa deitu eutsan. Langileak sortu baina kapitalistek boltsikoratzen daben diru-balioari, zehazki.

ELAIA MENDIOLAGOITIA OLEA

Kazetaritza ikaslea



“Inbasino” berbearen esan-gurea irakurtera jotera azaltzen jakuna haxe da: “Indarrez edo bortxaz leku, herrialde edo lurralde baten sartzea, hau menperatzeko asmoz”. Esplotazioa eta ustelkeria indarkeria motak dira. Ameriketako Estatu Batuen esku-hartzeak, inbasinoak dira. Horreek erabilten ditu iparraldeak, hegoaldea menperatzeko. Bertan muturra sartzean dabe eta pobrezian bizi diran pertsonak esplotetan ditue. Gero, eurak sortutako balioa ustelkeriaz bereganatzen dabe. Hori baita iparraldearen helburua; gehiago aberastea. Eta, ondorioz, hegoaldea iparraldearen menpe dago. Hori ez da inbasino ala? Beste herrialde baten eskua sartzea, bertoko langileak esplotatea eta eurak sortzean daben aberastasuna kentzea, zer da ba?

Guzti hau kontuan hartuta, gu inbadiduten gaitue? Edo guk inbadiduten doguz eurak? Esplotetan doguzan pertsonak gurera bizitza duin baten bila etortea, inbadidutea da? Nork inbadiduten dau nor? Hegoaldeak, iparraldeak; edo iparraldeak hegoaldea? Nortzuk dira inbaditzaileak? Bizi ahal izateko aukera barrien bila datozen pertsonak? Ala, historian zehar; eta gaur egun, beste herrialdeak indarrez, ustelkeriaz eta esplotazio bitartez menperatu eta menperatzen dabean horreek?

Hegoaldetik datozen migratzaileak, pertsonak dira, ez munstroak. Ez dira lapurrak. Pertsonak soilik. Gu modukoak. Ez deuskue ezer kentzean, ez gaitue inbadiduten. Iparraldeko herrialdeak urteak daroguz eurak inbadiduten, euren askatasuna eta dirua kentzean. Benetan jarraituko dogu, guk urtero pobretuten doguzan herrialdeetako pertsonak deshumanizetan eta kriminalizetan, holango esaldi hipokrita eta zatarraren bidez? Guk inbadiduten doguz eta gainera eurak dira gaiztoak, eta gu biktimak?



LUMATUTEN



XABIER LAMIKIZ

PISAkalipsia

Antonio Turiel fisikariak, porrot energetikoaren profeteak, 2020an argitaratu eban liburu zeharo pesimistearen izenburuagaz berba-joko bat egin gura izan dot, agian larregizkoa dana. Turielek *Petrocalipsis* deitu eutsan bere liburuari, proposatzen eban etorkizun energetikoaren aurrikuspena apokaliptikoa zala azpimarratzeko; nik PISAkalipsia deitu deusat testu honeri, EAEko ikasleek PISA txostenean eskuratu dabezan emaitzak sano txarrak izan diralako, batez be aurreko txostenagaz, 2023koa, alderatzen badoguz. Nafarroakoek nota hobeak atera dabezan arren, han be joerea beherantzakoa izan da. Halanda be, nire berba-jokoak ez dau iradoki gura hezkuntzaren etorkizuna petrolioarena bezain iluna danik. Petrolioaren nonoz agortuko da eta zalantzarria da energia-iturri barritagarriak harek itxitako hutsunea

beteteko gai izango ete diran. Hezkuntza ez da agor daitekean zeozer, zorionez. Baina emaitzak hor dagoz: gure ikasleen irakurmena (matematiketako eta zientzietako emaitzak apur bat hobeak izan dira, baina ez asko) estaduko beste inon baino gehiago jatsi da. Ceutak eta Melillak bakarrik eskuratu dabez emaitza txarragoak. Gainera, nazinoarteko batezbestekotik inoz baino urrunago gagoz. Hortaz, PISAkalipsia.

Programme for International Student Assessment edo PISA txostena Lankidetza eta Garapen Ekonomikorako Erakundeak (LGEE; OCDE gaztelaniaz) mende hasieran ipini eban abian. Nazinoarteko mailan, herrialdeen hezkuntza-sistemen kalidadea, ekidadea eta eraginkortasuna konparatzeko tresna objetibo bat da. 2000 urtean gitxiak imajinau eben mende laurden geroago herrialde guztietako emaitzak lehen txostenekoak baino nabarmen txarragoak izango ziranik. Baina holan izan da: hezkuntza sistemearen gainbehera herrialde guztietan gertatzen dabil. Zergatik? Agintariena eta adituena ez ezik, egoereak gizartearen hausnarketa sakona eskatzen dau. Errudunak guztiok garalako, ez hezkuntza sistemea bakarrik. Hezkuntza eskolan jasoten dan zeozer dala uste dabe askok. Arazoa konpontzen hasteko beharrezkoa da idea hori burutik kentzea.

ZERTZEAN



MARTIN ORTEGA MURO

Euskal Diasporaren Astea



BEGI TXINDORRA

Heldu da udaren akaberea eta Dimako Makaztui auzoko mahastien artean, hostoen itzalpean, txoriren batek habia zaintzean emon dau udea. Txorikumeak badagoz jaiota eta hasi dabe euren bizitzea, mahatsetatik urten daitekean ardao edo txakolina barriz, jaiotear, eta gu pozik. Bizitzearen alde biak, habia hutsik eta isil, mahastia oster heldu eta koloretsu. Haizea Ziarrustak BEGITUREN Oporretako Argazki Lehiaketarako bialdutako argazki honek, beraz, udako postal bat baino gehiago eskaintzen deusku. Begirada gelditzera konbidetan gaitu, hain gertu eta aldi berean hain ostenduta dagoan bizitza txiki horri erreparetera. Mahatsaren berdearen eta habiaren marroiaren artean, udaren atzen arnasea eta etorteko dagoan udagoiaren lehen taupadak.



Argazkia: Haizea Ziarrusta.



Lorategien Diseinu eta Gauzatzea

Ureztaketa instalazioa

Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea

Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88

gorosti@gorostisl.com



★ BEER & EDARIAK

Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91

Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozuetza polygonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



agoa

hagin klinikak

Ortodontzia

Implanteak

Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa

Odontologoa

Bidebarri 1. behe

48140 Igome-Bizkaia

T. 94 631 50 39

Itxaropena Zerbaita: 900

R.P.S. 31/06

IGORRE

Euskal Herriko lauburu bizirik handiena sortu gura da Inbiu Egunean

Hilaren 19an, erronkea eguerdian eroango da aurrera Lasarte parkean eta gero bazkaria, herri-kirolak eta musikea egongo dira.



Asier Abrisketa

Daborduko tradizioa bihurtu da Inbiu Igorreko euskerearen egunean gure hizkuntzearen aldeko ekintza erraldi bat egitea. Aurtengoan be, Inbiu Eguna ez da gitxiago izango eta erronkea, lauburu bizi bat egitea izango da. Land Art -elementu naturalen bitartez artelanak sortzea- modura ezetuten dan teknikea erabilita, modu komunitarioan 11.000 hazi eta landare ereingo dira, beste elementu natural batzukaz batera. Holan, haziak ernetu eta landarak hazi bitartean, eboluzionetan eta paisaian integretan joango dan Euskal Herriko laubururik handiena sortuko da.

Inbiu Eguneako urteroko

erronka guztietan moduan, izaera kolektiboa izango da ekintzearen ardatza eta hori azpimarratu dau Olatz Urkiza alkateak: “Lauburu biziak oso ondo irudikatuten dau Igorren eregi gura doguna: komunitate bizia, euskereagaz konprometidua eta alkarregaz sortzeako gai dana”. Urtero lez, adin eta herri guztietako euskaldunak, barri zein zaharrak, eta herriko alkarte guztiak dagoz deituta Inbiu Egunean parte hartzera.

Inbiu Eguneako egitaraua

Eguna 12:00etan hasiko da, lauburu egin ahal izateko material bilketeagaz. Ginkana baten bitartez eta trikitixa eta panderoagaz girotuta, parte hartzailerek taldeka lortu beharko da-

bez materialak herriko hainbat gunetan. Gero, sormen-prozesua hasiko da eta bakotxak, lur, hazi eta landarakaz bere obra txikia egin ahal izango dau, adibidez mandala bat. Obra guzti horreek batuta sortuko da lauburu bizia 14:00etarako. Hau amaituta, urtero lez herri bazkaria egingo da; txartelak jubiladuen tabernan eta Eguzkin saltzean dira. Bazkalostea Eingoko musikariek girotuko dabe eta arrastian, 19:00etan, Bizkaiko Ingude Txapelketea egongo da jokoan. Egunagaz amaituteko, Kubulu euskaltegi aurrean, txistorrea eta sagardoa eta kopaua girotuteko Mangual bikotea egongo da, biniloak pintxetan. Eguraldiak lagunduten ez badau, kiroldegiko frontoian egingo dira jarduerak.

ARTEA

Udalak auzokideak entzuten hasiko dau kursoa

Hilaren 15ean, 17an eta 22an, auzoz auzoko batzar irekiak egingo dira proposamenak batzeako eta online galdetegia be zabaldu da.

Asier Abrisketa

Arteako Udalak herria bera eta auzoak hobetuteko ekarpenak eta eskariak entzuteko hainbat batzar ireki antolatu dauz asteotarako. Auzokako bost batzar antolatu dira baina hurbildu ezin diranentzako, online galdetegi labur eta anonimo bat be zabaldu dau herriko Whatsapp taldearen bitartez,

<https://labur.eus/Arteaaauzoak> estekan erantzun daitekeana.

Lehenengo batzarra urigunekoa izango da (Herriko Plaza, Astui, Astuibekoa, Infante, Kalleja, San Martin, Garai, Esparta, Larrazabal eta Garantxe) hilaren 15ean, Kultur Etxeko aretoan 18:30ean. Hurrengo biak hilaren 17an egingo dira. Batetik Bildosolan dagoz deituta Bildosola eta Bildosola-

goitiako auzotarrak 18:00etan; jarraian, 18:45ean San Migel ermitara dagoz deituta Elexabeiti, Sarasola, Igertza, Palometxe, Mendieta, Ibarretxe, Madaria eta Gallaoko auzokideak. Hilaren 22an barriz, 18:30ean, Biteriko auzokideak auzoko autobus geralekuan dagoz deituta eta 19:00etan, Ugarte eta Ugartezarrekoak, Ugarteko autobus geralekuan.

DIMA

50 merkatarik hartuko dabe parte Emakume Sortzaileen Azokan

Egun osoko merkaduaz gainera, herri-kirol erakustaldiak eta kontzertuak egingo dira.

Asier Abrisketa

Urri lehenengoaren 19an, Bizkaiko Emakumeen Landa-Market Berritzeko Elkartek (BELAM) antolatutako Emakume Sortzaileen Azokea egingo da Diman. Goizeko 10:00etatik iluntzeko 20:00etara arte, 50 bat merkatarik egongo dira herriko plaza eta inguruetan, euren produktuak aurkeztu eta saltzean. Arratiako zein inguruetako andra sortzaile eta merkatariek hartuko dabe parte merkaduan.

Azoka eguna girotuteko, herri-kirolak eta kontzertuak be

egongo dira egunean zehar. Herri-kirol erakustaldia 12:00etan hasiko da plazan bertan. Azkoran Irati Astondoa zeanuriztarra eta Uxue Ansorregi mendaroztarra arituko dira eta harri-jasotean, Aimar eta Goiatz Galarraga neba-arreba orioztarrak ibiliko dira. Arrastian barriz, musikeak hartuko dau protagonismoa. 18:00etan Ane Han, Ane Goinetxe lemoaztarrak gidatutako taldeak eskainiko dau kontzertua plazan eta gero, gaua ondo sartuta egon arte, beste hiru talde igongo dira oholtzara: Nuzz, Formula 70-80 eta Jimenos Band.



AREATZA

Hilaren 27an ospatuko da Arratiako Gudari Eguna

Sortuk antolatutako ekitaldia 14:30ean ospatuko da Areatzako plazan eta gero, bazkaria egingo da.

Asier Abrisketa

1975eko urri lehenengoaren 27an Francoren Erregimenak hiltera kondenantutako atzen presoak ezkutau ebazan. Jon Paredes Manot “Txiki” eta Angel Otaegi ETako militanteak eta FRAPeko (Frente Revolucionario Antifascista y Patriota) beste hiru, Jose Humberto Baena, Jose Luis Sanchez-Bravo eta Ramon Garcia Sanz. Honeen omenez ospatuten da urtero Gudari Eguna eta 51. urteurren honetan, Areatzan egingo da Arratia mailako ekitaldia hilaren 27an, domekea.

Sortuk antolatuta, “Txiki” eta Otaegi zein beste gudari guztien

omenezko ekitaldia egingo da Areatzako Gudarien Plazan 14:30ean. Hau amaituta, hurreratatukoek bazkaria egingo dabe. Bazkarirako txartelak Areatzako Bixer tabernan, Arteako Herriko Bentan eta Igorreko Axular Herriko Tabernan dagoz salgai 15 euroan. Lanbakoentzako, txartelen prezioa 8 eurokoa da.



ARRATIA

Ikastaro ugari antolatu dira Arantzazu, Artea eta Zeanurin

Asier Abrisketa

Artean hilaren 15era arte emon daiteke izena; Arantzazun, 28ra arte, eta Zeanurin, hilea amaitu arte. Udaletxeetan egin behar dira inskripzioak.

Arantzazun bost izango dira eskainiko diran udal ikastaroak, danak datorren hilean hasi eta maiatzera arte. *Entrenamendu funtzionala*-ko talde bi (bata astelehen eta eguaztenetan 16:00etatik 17:00etara eta bestea martitzen eta eguenetan 17:00etatik 18:00etara), *Mantentze gimnasia* (astelehen eta eguaztenetan 10:30etik 11:30era), *Yoga* (martitzenetan 19:00etatik 20:30era), *Luzaketak* (eguaztenetan 17:30etik 19:00etara) eta *Barrea* (astelehenetan 19:00etatik 20:00etara).

Artean, osasuna eta kirolaren ingurukoak dira ikastaro gehienak: *Hirugarren adinekoentzako gimnasia* (martitzen eta eguenero 11:00etatik 12:00etara), *Zumba* (martitzen eta egue-

nero 19:30etik 20:30era), *Pilates* (martitzen eta eguenero 10:00etatik 11:00etara), *Hipopilates 1* (martitzenero 18:30etik 19:30era eta eguenero 17:30etik 18:30era), *Hipopilates 2* (martitzenero 19:30etik 20:30era eta eguenero 18:30etik 19:30era), *50 urtetik beherakoentzako entrenamendu funtzionala* (astelehen eta eguaztenetara 17:00etatik 18:00etara), *50 urtetik gorakoentzako entrenamendu funtzionala* (martitzen eta eguenero 16:30etik 17:30era), *Biojantza* (astelehenero 19:00etatik 20:30era) eta 2015-2020 artean jaiotakoentzako *Akroba-ziak* (eguaztenetara 17:30etik 18:30era). Beste alde batetik, *Zurezko taila eta pirograbazioa* ikastaroa astelehenero emongo da 18:00etatik 20:00etara. Irakurketa tailerrak barriz, bi egingo dira. Irakurleen Txokoa Alaine Agirre idazleak gidatuko dau hileko lehenengo barikuan 19:00etatik 20:00etara eta he-

rriko bi eta bost urte bitarteko ume eta familientzako Irakurketa Kluba be egingo da, urri bigarrenetik maiatzera bitartean.

Zeanurin, hamaika izango dira aurtan eskainiko diran aukerak: *Pilates* talde bi (bata astelehen eta eguenetan 11:15etik 12:15era eta bestea martitzen eta eguenetan 17:30etik 18:30era), *Entrenamendu funtzionaleko talde bi* (martitzen eta eguenetan, bata 18:45etik 19:45era eta bestea 19:45etik 20:45era), *Umeentzako dantzak* (barikuetan 16:45etik 18:45era), *Salsa eta batxata* (astelehenetan 19:30etik 21:00etara), *Adinekoentzako gimnasia* talde bi (astelehen eta eguaztenetan, bata 16:30etik 17:30era eta bestea 17:30etik 18:30era), *Adimen susperketa eta eskulana* (astelehen eta eguaztenetan 18:00etatik 19:00etara), *Mantenimenduko gimnasia* (astelehen eta eguenetan 12:15etik 13:15era) eta *Euskara eskolak* (astean hiru orduko klase bikotxa).

ARRATIA

30 ikasletik gora hezkuntza zentroetara joateko taxi zerbitzu barik gelditu dira

Taxistentzako ibilbideen lizitazioen prezioak % 30 bajatu dira aurtan eta beraz, Igorreko zein Zeanuriko eskolara eta Arratia BHIra doazan hainbat ibilbide esleitu barik geratu dira.

Asier Abrisketa

Arratiako herriek alkarbanatuten daben ezaugarria da uriguneetatik kanpoko auzoetan jente ugari bizi dala eta autobus geraldak batetik kilometro bi baino gehiagora bizi diran ikasleek, taxi bitartez egiten dan zerbitzu berezarako eskubidea daukie. Halanda be, aurtan ez da eskubide hau bete, Hezkuntza Sailak taxistentzako lizitazioen prezioak % 30 bajatu dabezalako eta ibilbideak ez dira esleitu. Holan, 30 ikasletik gora zerbitzu barik gelditu dira eta euren familiak egin behar izan dira kargu.

Diman ibilbide bitan, Zeanurin hirutan eta Artea eta Igorre artekoan faltau dira taxiak. Gainontzeko ibilbideak, pasau dan urteko lizitazioen luzapenari esker dagoz martxan. BEGITU jakin ahal izan dauanez, Hezkuntza Sailak barriro opatu deutseez ibilbideak

egiteko aukerak taxi gidariei eta honeek eskaintza barriak egin dabez, momentuz erantzunik jaso ez badabe be. Nahia Urrutxua Zeanuriko alkateak, Arratiako garraioaren egoerea salatu dau BEGITU: “Garraioaren gaia urteroko arazoa da eta desinformazino asko egoten da, kursoa hasi orduko ez dogu ezer jakin, ez udalok ez hezkuntza zentroek”.

Gurasoak martxan

Eskubideen ez-betete honek eragina dauka ez ikasleengan bakarrik, familiengan be. Lanera berandu heldu edo egun libreak hartu behar, aitita-amamak mobilizau behar... Egoera honen aurrean BEGITU jakin dau hilaren 11n kaltetutako familiak batzartu egin ziralako egoerea osotasunean ebaluau eta hurrengo pausuak ebazteko. Bertan, guraso alkarte eta eragileen atxikipena lortzeako idatzi bat argitaratutea adostu

eben. Gurasoetako batek BEGITU azaldu dauanez, argitaratuten daretik 4-5 eguneko epean erantzunik jasoten ez badabe, “ekintza ez idatziak” egiteko prest agertu dira.

Atzen orduan eta klasera berandu

Hilaren 13an, domekea, Arratia BHIk mezu bat bialdu eutseen kaltetuteko familiei gauez, lehen taxi gidari guztiek beteten eben zerbitzua taxi bakarrak eta autobus bik egingo ebela esanaz. BEGITU jakin dauanez, hurrengo egunean, astelehena, gaztetxo batzuk garraioa itxaroten baebizan be, ez taxia ez autobusa ez ziran euren bila pasau eta beste batzuen bila, 09:00etan heldu zan zerbitzua (klaseak 08:15ean hasten dira). Izan be, autobusek egin behar daben ibilbidea sano luzea da. Eskoletako kaltetuek barriz, ez dabe ezelango barririk jaso.

LEMOA

Hidrokarburo isuri larria izan dau Cementos Lemonak Ibaizabalera

Abuztuaren 23ko ekaitzak eragin eban isuria eta oindino be errekea garbituten dabiz; enpresek ordainduko dauz garbiketa lanak.

Asier Abrisketa

Cementos Lemonak Lemoako Udalarari emondako azalpenen arabera, abuztuaren 23ko ekaitzak “euri-uraren sarrera bortitza” ekarri eban, planta osoa geldiarazoz eta “fuel intalazioaren eukitedeposituko hustuketa-ponpearen hutsegitea” eraginaz. Deposituek gainezka egin eta hidrokarburoa, euri-uragaz batera, Ibaizabal erre-kara isuri zan. Langile zein herritarrek jarraian igarri eben fabrikatik behera urak hidrokarburoek eragiten daben distira berezia eta kolore berdeko ura joiazala.

Ordutik, Zubiaterako zubi pean barrera flotatzaile bat dago eta ponpatze kamioiak martxan ibili dira isuria garbitu guran, 20 egun beranduago fuel aztarnak ikusten badira be. Enpresek defendidu dau, “arazoa atzemon orduko holango egoerarako aurreikusitako jarduera eta euste-protokoloak berehala aktibau” ziralako eta alde horretatik, Esther Iturrioz alkateak BEGITU adierazoz dau: “Gure partetik lasai gagoz, lehen momentutik buru-belarri ipini ziralako”. Horrezaz gainera, garbiketa lanak enpresek ordainduko dituala baieztatu dau.

Ekologistak arduratuta

Makatzak Arratiako Ekologistak taldea, isurketearen barri izan bezain pronto azalpen bila hasi zan eta Lemoako Udaleko ingurumen teknikariak isuria Cementos Lemonatik urten zala onartu eutson. Gertatutakoaren azalpenaz gainera, “neurriak hartu dira ezbeharrak konpontzeko eta barriro gerta ez daiten; ibaia garbitzen hasi dira eta espero dogu laster ibaia garbi egotea” inoan mezuan. “Alfonbra pean ixteko asmo garbia”, inoan Makatzakeko kide batek BEGITU. Holan, talde ekologistak idatzia bildu dau “informazioa eta erantzukizunak eskatuteko”, URA agentziara zein Kantauriko Konfederazio Hidrografikora.

Abenduan bertan, Ekologistak Martxan-ek argitaratutako txosten batek jasoten ebanez, 2017an Lakuako Gobernuak emondako Ingurumen Baimen Integratuaren ez-betete ugari emon dira Cementos Lemonan atzen urteetan. Txostenean azaltzen danez, baimendutako emisinoen baloreen limiteak gainditu dira, erreteko erabilten diran hondakinetan ez-beteteak egon dira eta lur zein uren kutsatze kasuak identifikau dira.



Goiko irudian isurketea lehen egunetan, eta behekoan garbiketa lanetan.

ARRATIA

Intxortan burrुकatu ziran **Arratia Konpainiako** heroiak omenduko dabez Elgetan urri bigarrenean



Faxisten kontrako garaipenaren 90. urteurrena gogoratuteko, batailearen errepresentazioa egingo da urri bigarrenaren 4an.

Asier Abrisketa

Urri bigarrenaren 4an beteten dira 90 urte Arratia Konpainiako gudariek errekete karlistengandik Intxorta berreskuratu eta euskal frontea egonkortutea lortu ebenetik. Garaipen ha omenduteko, elgetar zein arratiarrak egun berean batuko dira Elgetako eleiza parean, 09:30ean, Arratiako gudari gazte hareei omenaldia egiteko. Herrigunetik Intxorta mendiraino, batailearen momentu desbardinak gogoratuteko errepresantazioak egingo dira, milizianoz jantzitako boluntarioakaz.

Ibilbidea eleizatik hasiko da eta bertan Arratia Konpainiako gudariak formau, armak hartu eta bataila gunerantza abiatuko dira. Salbador ermitan, Irrintzi Batailoia helduko da burrukaldira batzera eta aurrera egin ahala, kamilero eta erizainakaz egingo dau topo taldeak. Geroago artilleriaren eraso bat simulauko da. Intxorta-txiki eta Gaztelumendi artean egingo da erasoaldi eta batailearen errepresentazioa eta hau amaituta, karlisten banderea bajatu eta ikurriña altxauko da. Jarraian, belgikar bolunta

rioek ipini eben ametrailadora posizinara helduko da taldea. Bertatik, lubakietara eta gero herrira bajatuko dira barriz hurreratutakoak. Bide osoan zehar azalpenak emongo dira eta gitxi gorabehera, hiru ordutan amaituko da jarduerea.

Arratiarren garaipena Intxortan
Arratia Konpainia 1936ko garagarrilaren 18ko altzaldi militarra gertatu eta egun gitxitara sortu zan, bertoko boluntario gazteakaz. Arteako seminarioan instrumentu labur baten ostean, frontera bialdu ebezan eta 1936ko urri bigarrenaren 4an erreketeek Elgetako Intxorta media erasotu eta Gaztelumendi hartu ebenean, arratiarrak izan ziran bertaratuten lehenengoak. Arratiar baserritarren lehenengo erasoaldia izan zan ha, baina lortu eben posizinoa barriro bereganatutea.

Hildako bat, Juan Lejarreta Iturbe arteaztarra, eta hamazortzi zauritu izan ebazan erasoaldi haretan Arratia Konpainiak. Halanda be, garaipen historikoa eta garrantzia handikoa izan zan euskal frontearen egonkortzerako. Izan be, zazpi hilez erasoaldiak gelditutea lortu eben arratiarrek, besteak bestea, lehenengo Eusko Jaurlaritzea sortzea ahalbidetuta, Arratiako heroi hareen lorpenak, *Eusko Gudariak* ereserkian be batu ziralarik.

ARTEA

Merkartea, beste urte batez baserritar eta artisauen alkargune

Hilaren 19an egingo da Merkartea, hamazortzina ekoizle eta artisauen postu eta egun osoko jaiagaz.

Asier Abrisketa

Urri lehenengoaren 19an ospatuko da Merkartearen 32. edizioa, 1994an lehenengoz egin zanetik, izen handia hartu dauan azokea eta gerora, egun osoko jai be bilakatu dana. Aurten be ez da gitxiago izango. Goizez, 10:00etatik 15:00etara, hamazortzi ekoizleren postuetan baserriko produktuak salduko dira (denporaldiko baraz

kiak, ogi eta pastelak, gaztaiak, txorizoak, pateak...). Horreezaz gainera, egur-lanak, bitxiak, erropak eta bestelangoak salduko dabezan artisauak be hamazortzi izango dira. Zelan ez, taloen postua be ez da faltauko. Merkadua da egunaren ardatza, baina Merkartea askozaz harago doan jardunaldia be bada, euskal musika eta kultureak be badauka bere lekua-ta, eta honegaz, sortzean dan jai

giroa. Goizean zehar, azokako postuetan musikea egongo da giroa alaituten. Arrastian barriz, Carmen Madariagaren omenezko II. Andrazkoen Frontenis Txapelketako finala jokatuko da 18:00etan, Irati Garai eta Araitz Zapiko, Ane Aldai eta Irati Etxeitaren artean. 21:00etan, Enbata taldeak *Garbigailua* ikuskizuna eskainiko dau, jantzea eta antzerkia buztartuta. Gaua sartuta barriz,

AREATZA

Arratiako zekorra tomatea, Euskal Herriko onena

Zeanuriko Barazar baserrikoa da tomate hazia eta Hostal Bizkaia zanaren ondoan batutakoa izan da Aretxabaletan ospatutako IV. Euskal Herriko Bertako Tomate Lehiaketako irabazlea.



Aitor Uriguen, Barbara Alonso, Miren Poveda, Oscar Luque eta Jagoba Astondoa

Asier Abrisketa

Hamargarren urtez ospatu zan hilaren 6an Aretxabaletan Tomate Eguna. Inguruko produktuen merkadua, tomate barietadeen erakusketea, hazien gaineko lanketea eta sukaldaritza tailerra egin ziran bertan eta laugarren urtez, Euskal Herriko Bertako Tomate Lehiaketea be egin zan. Jagoba Astondoa hirugarrenez hartu eban parte lehiaketan eta aurtengoan bai, Arratiako zekorra tomatea izan da irabazlea. Guztira, 96 tomatek hartu eben parte.

Jagoba Astondoa eta Barbara Alonso billaroztarrek aurkeztu eben tomate irabazlea, baina hau hazteko lantaldean Aitor Uriguen eta Oscar Luque be egon dirala azpimarratu eben. Sorpresaz irabazi eben txapelketea eta Astondoa saria ezetu orduko, Goienako kazetariei azaldu eutseen: “Egia esan, tomate txikia da, baina ahora sartzean sekulako leherketea egiten dau”. Bigarren zein hirugarren saria, Juan Pedro Santos nafarrak eroan ebazan, bigarrena Zaragozako tomateagaz eta hirugarrena Aretxabaletakoagaz.



23:30etik aurrera, Luhartz dau jaiari jarraipena emoteko erromeria taldeak hartuko ardurea Arteako plazan.

MAXIMO GUISASOLA MISIONARIA

Maximo Guisasola misionari zeanuriztarra omendu dabe Ekuadorren

Hilaren leian bete dira 75 urte Maximo Guisasola abade zeanuriztarra hil zanetik. Hori dala-ta, Joseba Segura Bilboko gotzaina Ekuadorrera joan zan urri lehenengoaren 5ean Vínces herrian Guisasolari egin eutseen omenaldian parte hartzera.



Zutunik: ezkerretik 1.a: Francisco Arraibi; 3.a: Maximo Guisasola. Makurtutua: eskoitik lehenengoa: Eusebio Ocerinjauregui.

Jon Urutxurtu

1948an, Los Rios-en (Ekuador) misino bat zabaltzeko baime-na emon eutson Vatikanok Gasteizeko Eleizbarrutiari eta Carmelo Ballester gotzainak Ameriketako lur hareetara, ho-nako zortzi abadek osotutako lantaldea bialdu eban: Maximo Guisasola, Elías Zuloaga, Bitor Garaygordobil, Leandro Za-loña, Eusebio Ocerinjauregui, Gregorio Alonso, Francisco Arraibi eta Luis Alberdi. Ho-rreetako hiru arratiarrak ziran: Lemoako Francisco Arraibi, eta Zeanuriko Eusebio Ocerin-jau-regui eta Maximo Guisasola. Atzen hau izan zan taldearen arduradun eta buru moduan joan zana. Misino ha, eleizba-rruti batek sortu eban lehena izan zan; ordura arte, misinoak ordena erlijiosoen esku baka-rrik egozan-ta.

Hegazkinean lekurik ez egoa-la-ta, espedizinoko kideek ezin izan eben bidaia batera egin, eta binaka abiatu ziran. Hega-zkina hartu eben lehenengoak Luis Alberdi zumaiarra eta Francisco Arraibi lemoarra izan ziran; beste seirak beranduago eta txandaka atera ziran.

Talde haretan joan zan Victor Garaygordobil Amaitermin-go abadinoarrak gogaratzan eban: “Luzaro geratzeko go-goagaz joan ginan. Gainera toki haretako klima gogorra eta gaixotasunak kontuan hartuta, inoz ez ginala itzuliko be uste genduan”. Beroaren ondorioz, eta paludismoak eta urdaileko gaixotasunak jota, hasikera ba-ten une larriak igaro baebezan be, apurka-apurka egokituz joan ziran eta lanari gogor hel-

du eutseen.

Los Rios-en egin behar eben lana hiru arlotara zuzentzeko agindua eroan eben: lehenen-go, ebangelizazinora, hau da, bateoa eta hiletan ospakizu-nak burutu eta bere boronda-tez Eleizara hurreratzen zan jenteari ahal zanik eta harrera onena egitera; bigarren, kate-kesia emotera, bereziki umeei; eta atzenik, eraikuntza lanak egitera, abadetxea, eleizak eta eskolak eregiatz.

Guisasolaren heriotzea

Baina Ekuadorreko misinoan hirugarren urtea bete aurretik, zortzikoteak ezbehar gogor bat jasan eban Maximo Gui-sasola, taldeko arduraduna, istripuan hil zanean. Bera joian autobusak topo egin eban gasolinaz betetako zisternea eroian kamioi bategaz eta ber-tan kiskalduta hil zan. 1951ko urri lehenengoaren 1a izan zan. Zorigatxari aurre eginaz, euren betebeharrei erantzunez jarrai-tu eben gainontzeko abadeek, eta Maximoren lekukoa Victor Garaygordobilek hartu eban.

Garaygordobilek modu ho-netan gogoratuten ebazan hiru misionari arratiarrak: “Maximo Guisasolak “*don de gentes*” eu-kan, oso diplomatikoa zan, eta gure lana aurrera erodateko bi-deak zabaltzen oso trebea zan, bertako politikoakaz eta agin-tariakaz harremanetan ipinita. Francisco Arraibi, Lemoako semea zanez, obrak egiten ar-tistea zan; zenbat bider gogo-ratzen zan bere herriko zemen-toaz! Eta Eusebio Ocerinjauregui gizon fina eta zintzoa zan, baina aldi berean umoretsua eta ada-rra jotzen ekiana”.

Bilboko gotzainaren bidaia misinora

Joseba Segura gotzaina urri lehenengoaren 3an, egunez, heldu zan Ekuadorrera Euskal Eleizbarrutietako Misinoetarako ordezkaritzearen buru eta urri lehenengoaren 8ra arte egon zan bertan. Besteak beste, gi-zarte jantokiak, eskolak, san-tutegiak eta parrokiak bisitau ebazan Babahoyo, Quevedo eta Ricaurten. Ekitaldi nagusia,

omenaldia, urri lehenengoaren 5ean izan zan Vínces herrian, hemen jardun ebalako Guisa-solak misino-lanetan eta bertan dagoalako hobiratuta.

Atzenik gogoratu, Joaquin Lu-carini eskultoreak egindako bus-toa daukala jaio zan etxe aurrean, “Fondea” izenaz ezetuten dan bere jaiotzako etxe aurrean, eta Andra Mari parrokian Los Riose-ko misinoari buruzko erakuske-tea dagoala ikusgai. 2012an an-

tolatu zan Los Rioseko misinoari buruzko erakusketea da.



Guisasolaren brontzezko bustoa.

Inbiu

IRAILAK 19 2026

12:00 - 14:00

LAUBURU ERRONKA: EUSKARA LORATU
Lasarte parkean*

15:00

HERRI-BAZKARIA LASARTE PARKEAN.
Tiketak salgai jubilatuenearn eta Eguzki tabernan.
BAZKALOSTEAN EINGO

19:00

BIZKAIKO INGUDE TXAPELKETA OFIZIALA.
Lasarte parkean*
OSTEAN MANGUAL DJ-A
Kubulu euskaltegi aurrean (luntxa egongo da)

Zatoz Euskal Herriko Lauburu bizirik handiena sortzera!!

HELDUAK
20€

UMEAK
18€

*EURIA EGITEN BADU, FRONTOIAN.

JULEN IPIÑA

“Pagomakurretik behera ikatza bajatuteko erabilten ziran bideak berreskuratutea da helburua”

Urri bigarrenaren 3rako antolatu da aurtengo Areatzako Mendi Martxea, hamahirugarren urtez. Ekimen hau mendiaz gozatuteko bakarrik ez, herriko eta Gorbeiaiko mendialdeko antxinako bideak berreskuratuteko helburuagaz jaio zan eta oindino be, horretan dihardue. Aurtengo martxearen gainean gehiago jakiteko helburuagaz, Lamino Kirol Klubeko kidea eta martxearen antolatzaileetako bat dan Julen Ipiña alkarrizketatu dogu BEGITUN. 12, 19 eta 25 kilometroko hiru ibilbide antolatu dira eta berak aurreratu dauanez, antxinako ikatz-bideak berreskuratu eta ezetuarazotea da aurtengo helburu nagusia.

Ager Barragan

Zelan sortu zan Areatzako martxea eta ze bilakaera euki dau 13 edizino honeetan?

Areatzako Mendi Martxako lehenengo urteetan ni ez nintzan egon, baina mendi martxea sortu zan Laminoko kide batzuk herriari mendian dagozan txoko guztiak erakutsi gura izan eutsiezanean. Helburu argienetako bat da Areatzak daukazan bide zaharrak berreskuratu eta herri-tarrei horreek erakustea, holan bideak ondo manteniduaz eta urtean zehar herriak eta herritarrek erabiltea ahalbidetuaz.

Aurten, antxinako bideak berreskuratuko dira. Ze bide dira horreek?

Aurten, lehen Gorbeiatik behera eta batez be Pagomakurretik behera ikatza bajatuteko era-

biltzen ziran bideak berreskuratutea da helburua. Aurtengo mendi martxearen atzenengo partean, Kortatxin, antxina ikatza egiteko erabilten ziran txondorren errastu edo siluetak ikusi ahalko dabez parte-hartzaileek.

Zergaitik da garrantzitsua bide horreek berreskuratutea?

Atzenean mendian eta basoan hazten dabilen txarrikeria ikusita eta ganadu faltea dagoala ikusita, antxinako bide horreek desagertzen dagoz. Orduan, mendi martxea baino lehenago bide horreei tratamentu bat emoten jakie, garbitu egiten dira eta holan, jenteak bide horreek mendi martxan erabili ostean, urtean zehar be, behin ikasita dagozala, erabili ahalko dabez eta holan mantenidu ahalko dira.

Ze ekarpen uste dozu egiten deusala mendi martxeak

bide horreek berreskuratuteari eta Areatzako herriari?

Mendia atzenaldian oso modan ipini dan gauza bat da eta mendira goazen jenteak, normalean, beti bide bardinak erabilten doguz eta antxina erabilten ziran bideak apurka-apurka desagertuten doaz. Mendi martxeak herriari egiten deusan ekarpena da, bai helduek, gazteek eta baita herriko txikerrenek be egunero erabilten ez diran baina berez gure kulturearen parte diran bideak barriro be erabiltea. Nagusi askok igual bere gaztaroan ezetu ebezan bide horreek, baina batez be gazteok, ez doguz ezetuten eta mendi martxeari esker bide horreek barriro erabilten hasten badira, ba kriston onurea dakar bai mendi eta bai herriarentzako.

Horretan batez be Iñigo Itur-

be eta Ibai Milikua ibiltzen dira oso fin. Iturbek oso ondo ezetuten dauz Areatzak daukazan txoko guzti-guztiak eta ibilbideak diseinetako oso lan handie egiten dabe.

Hiru ibilbide prestau dozuez, 12, 19 eta 25 kilometrokoak. Zer aurkituko dau parte-hartzaileak bidean?

Oin dala urte bitik ona prestatan dogu hirugarren ibilbide txiki hori. Egia da hirugarren ibilbide horretan umeak edo etxeko txikerrenek eta familieek egiteko ibilbidea prestatuten dala, baina aurten berezitasun bat be eukiko dau. Normalean hirugarren ibilbide hori plazan hasi eta plazan amaituten zan, baina konturatu ginan ibilbide laburra egiten eben personek ez ebela Areatzako Mendi Martxeak daukazan txokorik politenak ezetuten. Horregaitik aurten, ibilbide laburra egiten daben personek, ertainekoak moduan, Bikozganera igongo ditu antolakuntzeak autobusean eta bertan hasiko dabe euren 12 kilometroko ibilbidea. Holan Areatzak parke naturalean daukazan txoko politenak ezetuko dabez mendi martxako partze-hartzaile guztiek.

Atzen urteotan aldatu da jentearen interesa mendiaganako edo mendi martxeaganako?

Lehenik eta behin gero eta fenderau gehiago dagoz Lamino Kirol Klubean eta mendi martxeak atzenengo urteotan euki dauan gorakadea terriblea izan da. Oin dala lauzpabost urte 200 persona batuten ginan, eta igaz adibidez 437 persona izan ginan. Aurten ikusi dogu gorakada hori mantenidu ahal dala baina aldi berean, momentuz ez daukagu 500 persona baino gehaiagoko ekitaldi bat egiteko potentziala. Atzenean oso gatxa da 500 persona bai-

no gehiago plazan batu eta menditik ibilbideak egitea. Horregaitik aurten pentsau dogu izen-emotean 500 personara heltzean garanean zarratutea.

Gure ustez, 500 personagaz izen-emotea zarratutea mendia zaintzeako modu bat be bada. Pentsau behar dogu hainbeste persona menditik ibilteak inpaktu ekologiko handia ekartzen dauala, ze nahiz eta mendia ahalik eta gehien zaindu, beti dagoz gura barik jausten diran gauzak eta zaborra; horregaitik pentsetan dogu zifra hori nahikoa dala.

Zein da Laminoren lana martxa honetan?

Berez Lamino laguntzaileetako bat da, martxea Laminotik aparte sortu zan ekintzea da. Ointxe bertan 5-6 laminokide gagoz mendi martxea antolatuten. Baina laminokide ez diran personak be dagoz sartuta martxan, lehen aitatu dodan moduan, Iturbe oso persona garrantzitsua da mendi martxearen antolakuntzan. Laminok daukan konpromisoa da herriari hur daukaguzan bideak erakustea, eta holan, beste leku batzutara joan behar ez garala be erakustea eta herritarrek mendiko txoko politenak ezetuea. Adibidez igaz kobazuloa eta ur-jauzia sartu genduzan ibilbidean eta jenteak sano pozik amaitu eban martxea.

Zelango izan da aurtengo martxearen aurrelanketea?

Aurtengo mendi martxea antolatutea ez da bape erreza izan. Urteetan zehar Lamino eta mendi martxako antolakuntzan oso garrantzitsua izan zan Xabi Iturriagak itxi euskun igazko mendi martxatik aste bira eta bueno, oso gatxa egin jaku bera barik batu eta hau aurrera ateratea, ze bera izan da betidanik gure liderra eta gure gidari garrantzitsuenetako bat. Bera izan zan Lamino Kirol Klubeko fundatzaileetako bat eta presidentea, oso langile fina zan eta beti jentearengan pentsetan eban personea izan zan. Hau da, sortuten eban produktua, ez eban gura marka moduan sortu baizik eta herriko eta herritarrentzako sortuten zan produktua izatea gura eban. Jentea pozik egoteko sortuten eban Iturriagak dana eta herritarrek pozik baegozan, berarentzako bazan nahikoa.

Eta bueno, azpimarratu gura dot bera barik aurrera jarraitutea oso-oso gatxa izan dala, baina nire eta laminokide guztien ustean, aurtengo mendi martxeak aurrera jarraitutea eta beste behin arrakastatsua izatea, Xabiri egin ahal jakon omenaldirik politena da.



FUTBOLA

2. RFEF mailako lehen garaipena lortu dau andrazkoen Arratia Ak

Andrazkoen Arratia Ak denporaldi honetako lehenengo garaipena lortu eban hilaren 13an Burgosen, 0-1 irabazita. Hilaren 19-20ko astegoienean, gainera, nagusien beste talde guztiek ekingo deutsie euren ligei.



Arratia A taldea. Argazkia: Jokin Gurtubai (@gurtu.visuals).

Erredakzinoa

Andrazkoen Arratia Ak 0-1 irabazi eban 2. RFEF mailako bigarren jardunaldiko partidua Burgos taldearen kontra etxetik kanpo. Gola 89. minutuan sartu eban Amaia Altzaga aurrelariak. Pertidu amaieran BEGITU Nerea Beitia Lemoako kapitainagaz egon zan eta hauxe adierazo eban: “Partidu gogorra izan da. Burgosek talde oso ona dauka eta jakin

dogu espazioak emon ezker oso arriskutsuak dirala goian. Guk argi euki dogu zelaian egin beharrekoa, batera egon, laguntzak eskaini eta dueluetan fuerte. Lan oso ona egin dogu batez be defendiduteko momentuan, eta nahiz-ta batzutan sufridu gure planteamentuan sinisten jarraitu dogu. Lehenengo 3 puntu honeek sano inportanteak dira taldeak konfiantza gehiago hartzeako eta hurrengo partidua

preparetako”. Aurreko astegoienean jokatu eban lehenengo partidua Urbietan Victoria CF, A Coruñaiko taldearen kontra, eta 1-4 galdu eban. Partidu biren ostean Arratia Ak 3 puntu ditu eta 9. postuan dago. Datorren partidua Bizkerre taldearen kontra jokatu dau Urbietan hilaren 20an, 16:30ean.

Lau talde ligeari ekiteko prest Lemoako Harrobik, gizonezkoen Arratia A eta B taldeek eta andrazkoen Arratia Bk urri lehenengoaren 19-20ko astegoienean hasiko dabe ligea.

Lehentasunezko Mailara igon dan Lemoako Harrobik Sondika hartuko dau Arlona-gusian hilaren 19an, 18:00etan; gizonezkoen Arratia Ak Urduliz izango dau aurkari Urbietan hilaren 19an, 15:45ean; gizonenezkoen Arratia Bk, barriz, urri lehenengoaren 20an, 12:00etan jokatu dau La Merceden zelaian. Bestalde, Euskal Ligara igon dan andrazkoen Arratia Bk Sestao Riverren kontra jokatu dau Urbietan hilaren 19an, 13:15ean.

ORIENTAZINOA

Estaduko IbeRogaine orienting ligarako probea urtengo da Zumeltzatik

Bederatzi orduko proba nagusiaz gainera, lau orduko ertaina eta hasibarrientzako ordu bikoa be egingo dira.

Asier Abrisketa

COBI orienting taldeak bigarren antolatu dau II. Urkiola-Eskuagatz Rogainea eta hau hilaren 26an egingo da, Zumeltzan (Dima) hasita. Bertatik, bakotxak egiten dauan probearen arabera, Saibi, Eskuagatz eta Urkiolara be helduko dira parte hartzaileak. Hiru proba dagoz aukeran. Batetik, IbeRogaine ligarako puntuagarria izango dan bederatzi ordukoa (10:00etan), bigarrenik esperientziadunentzako lau ordukoa (11:00etan) eta atzenik, hasibarriak dira-

nentzako ordu bikoa (11:30ean). Proba luzeko sari banaketea eta afaria Otxandion egingo dira 20:00etan, proba ertainaren sari banaketa eta bazkaria 16:00etan, hau be Otxandion. Hasibarrientzako proba barriz, lehia bakoa da eta Zumeltzan bertan emongo da jatekoa proba amaitu orduko. Orienting proba honetako parte hartzaileek Dima, Mañaria eta Abadiñoko lurretako eremu natural ederrenetakoe-tatik pasau eta pagadi, kobazulo, zonalde karstiko, errekatxo eta baso barriak ezetuteko



aukerea emongo deutsee, antolatzaileek ipinitako balizen bila ibili bitartean.

TRIATLOIA

Oskar Garro hirugarren Espainiako Paratriatloi Txapelketan

Asier Abrisketa

Abuztuaren 22an Meridan jokatu zan Espainiako Paratriatloi Txapelketea eta atzen hiru urteetan moduan, Oskar Garro igorreztarrak hartu eban parte bertan, PTS2 kategorian. Guadiana errekan 750 metro uger egitea, bizikletan 20 km egitea eta galapan beste 5 kilometro egitea izan zan probea. Hau beteteko, Garrok ordu bat, 35 minutu eta 50 segundo behar izan ebazan, hirugarren postua eskuratuta.

Garrok BEGITU kontau dauanez, “espektatiba onakaz” joan zan Meridara: “Aurten askoz hobeto ibili naz eta proban ondo ikusi nintzan, egin dodan triatloirik osoena izan da”. Halanda be, eta triatloietan sartu aurretik txirrindularia izanda, onartu dau txarren egin ebana bizikletan egindako zatia izan zala. Holan, bigarren postutik hurbil geratu zan, baina hau lortu barik. Lehenengoa Lionel Morales (01:20:14) atzen urteetako irabazlea izan zan eta bigarrena, Aitor Oleaga (01:33:07).



PELOTEA

Udako Torneotik kanpo geratu dira Aldai eta Bertiz

Goiuri Zabaleta semifinallean ezingo danez egon, Amaia Aldaik hartuko dau bere lekua Itxaso Erasunegaz batera.

Asier Abrisketa

Amaia Aldai eta Nahia Bertiz batera egon dira Udako Torneoa jokauten eta lehen fasea gaindituta, bigarren fasean ibili dira atzen aste bietan. Halanda be, partidu biak galduta txapelketatik kanpo geratu dira. Zeberion jokatu eben lehena hilaren 6an eta 19-22 galdu eben Aizane Ibarrola eta Uxue Osesen kon-

tra. Bigarrena hilaren 11n jokatu eben Zarautzen eta 22-17 galdu eben, Olatz Arrizabalaga eta Irati Zabalarren kontra. Halanda be, dimoztarrari beste aukera bat emon jako. Goiuri Zabaleta eta Itxaso Erasun finalaurrekora sailkatu dira baina Zabale-tak ezin izango dau jokatu. Holan, Amaia Aldai aukeratu dabe honen lekua beteteko. Hilaren 19an jokatu da finalaurrekoka Oñatin.



FRONTENISA

Arteako II. Andrazkoen Frontenis Txapelketako finala Merkartean

Irati Garai eta Araitx Zapiko batetik, eta Irati Etxeita eta Ane Aldai bestetik egongo dira aurrez aurre.

Asier Abrisketa

Urri lehenengoaren 19an, Merkartea eguneko arrastiko 18:00etan, emongo jako akaberea Kafrangak talde feminista arteaztarak Udalagaz batera antolatutako Andrazkoen Frontenis Txapelketearen bigarren edizinoari. Txapelketea Igorren jaio eta Artean hil zan Carmen Madariaga Bustinza “Arrati”-ren omenez jokaturen da, 1940ko hamarkadan zazpi urtez profesionala izan zan erraketistea.

Irati Garai (Artea) eta Araitx Zapiko (Dima) batetik, eta Irati Etxeita (Zeanuri) eta Ane Aldai (Dima) bestetik dira finalistak. Baina aurretik, hamalau bikoteko txapelketea jokatu da, talde bitan banatuta. Taldeka, ligaxkea jokatu zan eta gero, talde bietako bikote bi onenek euren arteko ligaxkea jokatu eben. Atzenean, B taldeko bikote bi ailegau dira finalera.



“Bertan batuko gara, aldarrikapen, lehiaketa eta jai giroan!”, dinoe Kafrangaketik.

Erraketisten gaineko berbaldia Kultur Etxean

Arteako Andrazkoen Frontenis Txapelketea Carmen Madariaga Bustinza “Arrati” erraketistearen omenez jokaturen da eta bera zein 1940ko hamarkadako andrazko erraketistak gogoratuteko, berbaldia egingo da hilaren 16an. Arteako Kultur Etxean, 19:00etan eskainiko dau Estibalitz Gonzalez Soloazabal idazle, irakasle eta wikilariak Erraketistak: ahaztutako pilotari aitzindariak berbaldia. Izan be, Euskal Herritik asko izan ziran Madrilen eta Bartzelonan jokatu eben andrazko erraketistak. Euren jarduna ahaztu egin da baina 1943an, estadu mailan modalidade desbardineta 1.432 pelotari profesional baegozan, erdia baino gehiago (734), andrazko erraketistak ziran.

ERRUGBIA

Arratiko Zekorrak-ek errugbian jokatzeko deia egin dau

Erredakzinoa

Arratiko Zekorrak errugbi taldeak jokolari barriak taldera batzera animau gura ditu. Entrenamentuak martitzen eta eguenetan izango dira, 17:30etik 19:00etara, Igorreko San Txisme zelaian.

Deialdia umeei zuzendu-

ta dago, errugbian lehenago jokatu izana beharrezkoa izan barik. Interesa daukienek entrenamentu batera hurreratu, kirola probau eta taldeagaz gozatzeko aukerea izango dabe. Indarra, laguntzea, errespetua eta adiskidetasuna dira Arratiko Zekorrak taldeak nabarmendu gura dauzan balioak.

MENDI LASTERKETEA

Gorbeia Suzien, beste urte batez eliteko mendi korrikalarien topaleku

Hilaren 26an ospatuko da Zeanuriko mendi jardunaldiaren hamahirugarren edizinoa, 32K Skyrace eta 21K lasterketen inguruan.



Asier Abrisketa

Gorbeia Suzien trail running-aren Bizkaiko zita inportantea, eta mundu mailan be garrantzitsuenetarikoa, heltzear dago Zeanurira. Urri lehenengoaren 26an korriduko dira 32 kilometro eta +2.400 metro desnibeleko Skyrace-a eta 21 kilometro eta +1.200 metro desnibeleko 21K lasterketak. Aurten be, Merrell Skyrunner World Series ligurean parte izango da lasterketa nagusia eta bertoko zein mundu mailako korrikalari garrantzitsuenak akzinoan ikusteko aukerea egongo da: Onditz Iturbe, Anartz Artola, Aitor Ajuria, Gabriela Lasalle, Lluc Torne, Ibai Angulo, Yannick Memheld, Dalia Alonso, Martina Gonfaus eta beste asko.

Lasterketetatik harago, honen inguruan hainbat jarduera antolatuten dira eta aurten be ez da gitxiago izango. Lehenengo zitea hilaren 18an izango da, Igorreko Lasarte Aretoan. Bertan, Aitor Intxaurrea zeanuriztarrek bere oinezko bidean grabautako GR-282 Artzaintzaren naturbidea dokumentala proiektauko da-ta, egileagaz solasaldia egiteaz gainera.

Urri bigarrenaren 26a oster, jai itzel bat izango da Zeanurikoa. Goizean zehar jentea herrian zein Gorbeia txoko desbardineta ibiliko da -gogoratu ezin dala parkera kotxerik igon eta Zeanuri era Areatzatik autobusak dagozala Pagomakurrera igoteko, doban- korrika-

lariak animetan. Sari banaketea herrian egingo da 14:30ean eta hortik aurrera, mendizaleak jai giroan murgilduko dira: musikea, jantzak, herri-kirolak... Betiko lez, mendiko materiala erosteko postuak, txosnea eta food truck-ak egongo dira herrian. Datorren egunean barriz, domekea, umeak izango dira protagonista euren lasterketa-txo propioagaz.

Urri lehenengoak 18, barikua
19:00etan, GR-282 Artzaintzaren naturbidea dokumentalaren proiektzinoa eta Aitor Intxaurrea egileagaz solasaldia Igorreko Lasarte Aretoan.

Urri lehenengoak 25, barikua
12:00etan, lasterketearen aurkezpena Bilboko BBK Aretoan. 17:30etik 20:00etara, dorsal banaketea.

19:00etan, lasterketearen berbaldi tekniko.

Urri lehenengoak 26, zapatua
07:00etatik 08:30era, dorsal banaketea.
09:00etan, Skyrace lasteketearen urtekerea.
11:00etan, 21K lasterketearen urtekerea.
13:00etatik 16:30era, korrikalari-entzako bazkaria.
14:30ean, sari banaketea.
16:30ean, In Vino Veritasen kontzertua.
18:30ean, herri-kirolak.
20:00etan, musikea eta jantzea Eingo taldeagaz.
23:00etan, eten bako musikea.

Urri lehenengoak 27, domekea
11:00etan, umeen lasterketarako izen-emotea.
12:00etan, umeen lasterketearen hasikerea.



MUSIKEA

Ane Han taldeak kontzertua eskainiko dau Dimako Emakume Sortzaileen Azokan

Urri lehenengoaren 19an, 18:00etan izango da kontzertua plazan; Nuzz, Formula 70-80 eta Jimenos Band taldeek be joko dabe gero.



Asier Abrisketa

Ane Han taldeak zemendian aurkeztu eban *Itzulera(k)* EP barria Igorren eta ordutik, diskoko sei kantak eta besteren bat be, aur-

keztuten dabiz aretoz areto eta eszenatokiz eszenatoki. Holan, hilaren 19an Diman be eskainiko dabe kontzertua. Ane Han, taldeko abeslaria dan Ane Goienetxe lemoaztarraren izen artistikoa

da. Endika Parra eta Unai Santos gitarra-joleakaz, Amaia Izarzugaza teklisteagaz, Nikita Shemyakin baju-joleagaz eta Ander Gorostiola bateria-joleagaz, pop-rock estiloko musikea egiten dabe.

Ane Han-ek, 2022an argitaratu behar eban *Gorantz* EPa baina grabaketa fasean egoala, Goienetxek auto istripu larri bat izan eban eta bertan behera gelditu zan proiektua. Goienetxek, BEGITUREN 458. zenbakian eskainitako alkarizketan aitatu eban sei kantetako bakotxa istripu osteko emozino esanguratsuetatik dagoala abestuta: "Batzutan etsipena dago kantuen oinarrian, beste batzutan amorrutik sortzean da eta beste batzutan esperantzatik; uste dot argitasunez betetako kantak dirala".

Belam Landa Fest

Egun horretan, 50 merkatariren parte-hartzea izango dauan Emakume Sortzaileen Azokea egingo da herrian goizean hasi eta iluntzera arte. Eguerdian herri-kirol erakustaldia egingo da eta arrastian, kontzertuak. Ane Han izango da 18:00etan oholtzara igoten lehena baina gero, beste hiru taldegaz segiduko dau jaiak gaua ondo sartuta egon arte. Nuzz Bilbo eta Santander arteko power pop-rock taldea, bersinoak eskainiko dituan Formula 70-80 taldea eta Joaquin Sabinaren musikea joko dauan Jimenos Band egongo dira.

EUSKERA

UEMAko gure eremuko herrietan kale-neurtzaileak behar dabez

Neurketak egiteko kale-neurtzaileak behar dira eta EHUK kredituak emongo deutseez ikasleei; interesa izan ezker idatzi begitu@begitu.eus-era.

Erredakzinoa

Udaleri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) herri arratjarretako kaleetan zenbat euskera entzuten dan neurtuko dabe datozan asteetan. Neurketak UEMAK bultzatutako egitasmoaren barruan egingo dira, Soziolinguistika Klusterragaz alkarlanean. UEMAREN udalerrien zerrendan gure eremuko zazpi herri agertzen dira: Arantzazu, Areatza, Artea, Dima, Igorre, Zea-nuri eta Zeberio.

Kale-neurketak herrietako espazio irekietan entzundako alkarizketa informalak behatuz egiten dira. Ez jakie herritarrei galderarik egiten: kalean berbetan dagozan personen jarduna zuzenean behatzen da, hizkuntzen ahozko erabilereari buruzko datuak batzeako. Adina, sexua eta umeen presentzialango aldagaiak be hartzean dira kontuan.

Bildutako informazioak herri bakotzeko hizkuntza-errealidadea hobeto ezetuteko eta euske-arearen kale-erabilerearen bilakare-aztertzeko balioko dau. Datu horreek erabilgarriak dira euske-arearen bizibarritze-prozesuaren inguruan hausnartzeko eta etorkizuneko hizkuntza-politikak eta plangintzak zehazteko.

2026koa Euskal Herriko Hizkuntzen Erabilerearen Kale Neurketaren bederatzigarren edizinoa



izango da. Ikerketa 1989tik egiten da eta aurtengoa oin arteko zabalena izango da: 175 herri baino gehiagotan batuko ditue datuak, 350 neurtzailearen bidez. E-mailak 2027ko udabarritik aurrera kaleratzea aurreikusi dabe.

Neurketa honek egiteko, kale-neurtzaileak behar dira. Interesa daukanak begitu@begitu.eus helbidera bialdu behar dau mezua. EHUK kredituak emongo deutsez neurketea egiten daben ikasleei.

IKERKETE

Arratiaren gaineko ikerketea bultzatuteko Lydia Zapata bekea sortu dau Dimako Udalak

Graduko zein graduondoko ikasleentzako 6.000 euroko bekea hilaren 30era arte eskatu daiteke.

Asier Abrisketa

Dimako Udalak I. Lydia Zapata ikerketa bekea sortu dau, Axlor kobazuloko ikerketa lanetan hainbat urtez ibili zan arkeologoaren omenez. Helburua Arratiako edozein jakintza arloko ikerketa lanak sustatzea da (linguistika, antropologia, historia, ingurumena...), bertoko ondarea jagoteko asmoagaz.

Beka deialdi hau graduoko hirugarren zein laugarren mailako ikasleei, edo graduondoko ikasketak egiten dabezane dago zuzenduta; beti be, 30 urtetik beherako gazteentzako. Guztira, ikerketa lanerako 6.000

euro jasoko ditu deialdi honen irabazleak.

Bekearen eskaerea dima.eus webgunearen bitartez egin behar da hilaren 30era arte, oinarri eta zehetasun guztiak be webgunean azalduten dira. Ikerketea burutzeko epea 18 hilekoa da eta lana euskeraz egin behar da. Eskaerea egiteko, aurkeztu behar dan dokumentazioaz gainera ikerketa proiektuaren azalpen bat egin behar da, gitxienez sei orrialdetakoa, lanaren ikerketa esparrua, gaiaren egungo egoera eta interesa, ikertzaile edo taldearen esperientzia, baliabide, metodologia eta lanaren kronograma bat azalduta.

IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN

• **649 979 115** •

inigoirua@begitu.eus

● EUSKEREAA

UEMAK **Esnatu dinamikea** ipini dau martxan, Zeanurin egingo da Arratiako aurkezpena

Urri bigarrenaren 15ean egingo da Arratiako euskerearen datu soziolinguistikoen aurkezpena eta eragileen konpromisoak batzeako ekitaldia.



Asier Abrisketa

"Gaur egun moduan jarraitu ezke-ro, eremu euskaldunenetan be euskereak atzerantz egingo daua-la dinoe ikerketek", dinoe Udalerri Euskaldunen Mankomunitatetik euskerearen erabilerearen atzen datu soziolinguistikoak eskuan hartuta. Egoera honeri aurre egiteko ipini da martxan Esnatu di-namikea, era guztietako eragileak ahaldundu eta eragileen konpro-misoak sustatzeko helburuagaz. Ekimena aprilean aurkeztu eban UEMAK 18 eragilegaz bate-

ra: AEK, Bankoa Abanca, Bilgune Feminista, Cedema-Garalur, ELA, Euskadiko Futbol Federazioa, Euskaldendak Konfederazioa, Euskalgintzaren Kontseilua, Eus-kal Herriko Bertsozale Elkartea, Euskal Pilota Federazioa, Fagor taldea, Hekimen, IKA, Kutxabank, LAB, Laboral Kutxa, Lanartea eta Plazaola Partzuergo Turistikoa. Oin, herriz herri eta eskualdez eskualde landu gura da Esnatu eta horretarako, urri bigarrenaren 15ean Arratia mailako ekitaldia egingo da Zeanurin, 18:30ean plazako frontoian.

Maialen Zuazo UEMAKo Arra-tiako teknikariak Arratiako euske-rearen egoerearen gaineko aur-kezpena egingo dau eta Esnatu dinamikearen nondik norakoak azalduteaz gainera, norbanako eta eragileek konpromisoak har-tzeako ekitaldia egingo da. Horre-tarako, herri baktzeko ordezkari politikoek euren herrietako era-gile eta norbanakoak konbidetan joango dira egunotan, euren ar-tean eremu euskaldunek bizirik iraun dagien hartu beharreko konpromisoen inguruko hausnar-ketea bultzatuteko.

● JAIK

Sanmigelak auzoz auzo

San Migelen omenezko ermitak ugari dira gurean eta, beraz, jaiak ospatuko dira hainbat auzotan: Zeanuriko Uribe eta Altzustan, Igorreko Garbe eta Mikelen, Bediako Jauregi-Yeurin eta Arteako Elexabeitin.

Asier Abrisketa

ARTEA
 Elexabeitiko San Migel jaiak.
Urri lehenengoak 29, martitzena
 12:00etan, mezea.
 Gero, barauskarria.

BEDIA
 Jauregi-Yeuriko jaiak.
Urri lehenengoak 26, zapatua
 12:00etan, pintxo-potea.
 13:00etan, Igel Txapelketea.
 14:30ean, paella herrikoia.
 16:30ean, zozketak.
 17:00etan, Mus eta Briska Txa-pelketak.
 20:00etan, bingoa.
 21:00etan, bokatak, txokolatea eta musikea.
Urri lehenengoak 27, domekea
 13:30ean, XI. Pintxo Lehiaketea.

IGORRE
 Garbe eta Mikeleko San Migel jaiak.
Urri lehenengoak 25, barikua
 17:30ean, KAY Robot kale-antzer-ki familiarra.
 18:30ean, bits festa.
 19:00etan, parrilladea AMEren eskutik.
Urri lehenengoak 26, zapatua
 18:30ean, Igel Txapelketea.
 21:00etan, dj-a.
Urri lehenengoak 29, martitzena
 12:00etan, mezea.
 Gero, barauskarria trikitilari-

girotuta.
ZEANURI
 Uribeko San Migel jaiak.
Urri lehenengoak 19, zapatua
 13:00etan, mezea.
 Gero, barauskarria eta herriko txistulariak.
 14:30ean, auzo bazkaria.
 Gero, Mus eta Briska Txapelketak.
Urri lehenengoak 20, domekea
 12:00etan, arimen aldeko mezea ermitan.
 17:00etan, urdaia eta txokolatea danontzat.

ZEANURI
 Altzustako San Migel jaiak.
Urri lehenengoak 29, martitzena
 11:00etan, mezea (txokoan).
 Gero, barauskarria eta herriko txistulariak.
Urri bigarrenak 2, barikua
 18:30ean, Mus Txapelketako izen-emotea.
 19:00etan, Mus Txapelketearen hasikerea.
Urri bigarrenak 3, zapatua
 14:00etan, auzo bazkaria.
 16:45ean, Briska Txapelketako izen-emotea.
 17:00etan, Briska Txapelketearen hasikerea.
 17:30ean, Kofradien Arteko Bola Txapelketea.
 19:00etan, erromeria Bilbo anaiakaz.

TXANTXARRA

BA AL DAGO INOR ZURE HORTZEN ARTEAN BIZITZEN?

HORTZAK GARBITU LOTARA JOAN AURRETICI

AI!

ZE NAGAI, PASO...

TXINTATIK ERAKUSTEN DIGUTE HORTZAK GARBITZEAREN GARRANTZIA

DENOK DANKUGU OHITURA HORI EZ JARRAITZEAREN ONDORIOAK

TXANTXARRA!

TXANTXARRA HORTZETAKO EHUN GOGORREN, ESMALTEAREN ETA DENTINAREN, SUTSIFEN IDHIZATUA DA.

1 AHONO BAKTERIOEK ZURE HORTZEN ARTEAN GERATZEN DIREN JANARI HONDARRAK HARTZEN DITUZTE...

2 ETA ESMALTEA ETA DENTINA ERASOTZEN DITUZEN AZIDOK SORTZEN DITUZTE, HORTZETAN PITZADURAK ETA ZULDAK SORTUZ.

3 TXANTXARRA HORTZ BARRURA IRISTEN BADA, GAL EGIN DEZAKEGURI

BARRA BADA SENDABIDERIK? ESADAZU BAIETZI

EZAGUTU TXANTXARRA! ETA HAREN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIO GHEGAGO DENTZA KANERA BLOGEAN.

● AGENDEA

URRI LEHEN. 15
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Urri lehenengoaren 28ra arte, udal ikastaroetarako izen-emotea udaletxean: *Entrenamendu funtzionala, Mantentze gimnasia, Yoga, Luzaketak* eta *Barrea*.

AREATZA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero udaletxean zabalik.

Hilaren 16ra arte emon daiteke izena udaletxean goizeko 08:00retatik 15:00etara edo <https://labur.eus/ikastaroak26-27> estekan, udal ikastaroetan. Ikastaroak: *Eskulanak, Crossfit, Zumba, Spinning, Pilates, Mantenimendu gimnasia* 62 urtetik gorakoentzat, *Puntua eta kakorratza, Euskal dantzak, Ehoziñ lanak, Joskintza, Luzaketak, Yoga*, 12-18 urte bitartekoentzako *Dantza modernoa* eta 7-12 urte bitartekoentzako *Xakea*.

Hilaren 20ra arte, Areatzako Mendi Marxarako (urri bigarrenak 3) izen-emotea rockthesport.com webgunean.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Urri lehenengoaren 25era arte, bialdu daitekez argazkiak BEGIturen Udako Argazki Lehiaketarako begitu@begitu.eus helbidera.

Eingo eskolako matrikulazioa 2026-2027 ikasturterako. 7 urtetik aurrera: triki eta pandero taldeak, txistu taldea, aniztasun funtzionaleko taldea, helduentzako musikea, EingoBand sorrerea eta dantzazaleak Garbe 23-24 (Igorre). Informazioa: 673 654 867.

Urri lehenengoaren 27an egingo dan Arratiako Gudari Eguneko bazkariako txartelen salmentea. Areatzako Bixer, Arteako Herriko Benta eta Igorreko Axular Herriko tabernetan.

ARTEA

Udal ikastaroetarako udaletxean izena emoteko atzen eguna: *Zurezko taila eta pirograbazioa*, 3. *adinekoentzako gimnasia, Zumba, Pilates, Hipo-pilates*, 50 urtetik gorako eta beherakoentzako *Entrenamendu funtzionala, Biojantza, Akrobaziak*, Irakurleen Txokoa eta Irakurketa Kluba.

Udal-batzarrak 18:30ean, Herriko Plaza, Astui, Astuibekoa, Infante, Kalleja, San Martin, Garai, Esparta, Larrazabal eta Garantzeko auzotarrakaz entzute batzarra. Kultur Etxean.

BEDIA

16:30etik 19:30era, informazino gunea eta liburutegia astelehenetik barikura zabalik.

16:30etik 19:30era, informazino gunean Udalak eraturako ikastaroetan eta Gaztegunean izena emotea. Hau da ikastaroen eskaintzea: *Yoga, Pilates, Koroo, Euskal dantzak, Jauziñ dantza taldea, Euskera ikasteko ikastaroa, Marrazketa, Gimnasia eritmiikoa, Memoria kognitiboa, Digitalizazio irigarria, Batzen-kido* eta *Saltsa/merenge* jantzak. Hilaren 18ra arte.

16:30etik 19:30era, urri bigarrenaren 17an, Txikubin txakolin bodegara egingo dan urtekerarako izen-emotea. Hilaren 18ra arte.

Urri lehenengoaren 18ra arte, 12-26 urte bitartekoentzako *Patinaje urbanoa* tailerrarako (urri bigarrenak 3, 10 eta 17) izen-emotea. Info gunean 16:30etik 19:30era.

Urri lehenengoaren 18ra arte, urri bigarren eta zemendian egingo dan Andrangeanako Indarkeriaren Kontrako Nazinoarteko Egunerako eta Gabonetarako apaingarriak sortzeako tailerrarako izen-emotea. Info gunean 16:30etik 19:30era.

DIMA

II. Urkiola-Eskuagatz Rogainean izen-emotea. Bederatzi eta lau orduko probetarako: <https://sico.fedo.org/carrera.php?id=20162437>. Ordu biko probarako: <https://www.deporticket.com/web-evento/13698-rogaine-urkiola>. Hilaren 21era arte.

IGORRE

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta eskola opor egun eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

Hilaren 19an izango dan Inbiu eguneko bazkariako txartelak salgai. Helduen menuak 20 euro eta umeenak, 18. Txartelak jubiladuenean eta Eguzki tabernan salgai.

LEMOA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Urri bigarrenaren 17an ospatuko dan Bizkaiko Erromeria Eguneko bazkariako txartelak salgai erromeriaeguna.eus webgunean (helduentzako haragizko edo barazki menuak 18 euro eta umeentzako menuak 12,5 euro). Zemendiaren 8ra arte, X. Lemoatz Traileko (zemendiak 15) marxa eta lasterketetarako izen-emotea buscarnetas.com webgunean.

Ikastaro eta tailerretan izena emoteko epea zabalik lemoa.eus helbidean: *Eskulanak, Informatika, Mugikorrarekin argazkigintza, Bizitzak josten, Xakea*

hautzaroan, Euskara-eskolak, Euskara merkatarientzat, A1 prestatzea, Berbalagun, Makillaje masterclass, Emozioak, Maskulinitate berriak, Burua marxan, Mundu digital segururantz, Mugimendua eta ongizatea, Bakardadeari aurre egiten eta Sendabelarrak.

UBIDE

08:00retatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHkoentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

Udal ikastaroetarako izen-emotea hilaren 30era arte udaletxean. *Pilates, Entrenamendu funtzionala, Urmeentzako dantza, Salsa eta Batxata, Adinekoentzako gimnasia, Adimen susperketa eta eskulanak, Mantenimenduko gimnasia* eta *Euskara eskolak*. Ikastaroetara joateko garraioa behar daben nagusiek 609 610 855 telefonoan eskatu behar dabe.

URRI LEHENENGOAK 16
ARTEA

19:00etan, *Erraketistak: ahaztutako pilotari aitzindariak* berbaldia Estibalitz Gonzalez Solozabalen eskutik. Kultur Etxean.

IGORRE

18:00etan, Biziro Alkargunearen irekiera jaia.

URRI LEHENENGOAK 17
AREATZA

19:00etan, frontoiaren erabilerearen inguruko bilerea. Udaletxean.

ARTEA

Udal-batzarrak. 18:00etan, Bildosola eta Bildosolagoitiako auzotarrakaz entzute batzarra Bildosolan; 18:45ean, Elexabeiti, Sarasola, Igertza, Palometxe, Mendieta,



Jantzea eta antzerkia buztartuko
ditu Enbatak Merkartean

Hilaren 19an, 21:00etan taularatuko da *Garbigailua* piezea, memoria kulturalaren galerea modu ironiko eta poetikoan aztertzeko.

Azokeaz gainera, Merkartean beti dago euskal kulturearentzako lekua eta aurren, jantzak eta antzerkia lantzean dituan Enbata Aldizkariak bul-tzatutako talde sortzaileak *Garbigailua* ikuskizuna taularatuko dau. Jantza garaikidea eta antzerki fisikoa buztartuten dauzan pieza honek zientzia fikzioa, satirea eta euskal folkloreko arketipoak lantzean dauz eta gal-dera nagusi bat planteetan dau: "Zergaitik deutso beldurra aurrerapenak memoriari?"

Obran, hiru zientzialarik jantzari baten oroimen kulturalak ezabatuteko makina bat sortu eta aurkeztuten dabe, baina esperimentuak kale egi-ten dau. Atzenean, lehenagoko irudiak eta folkloreak azarnak barriro agertuten hasten dira, eta zer ezabatu eta zer ahaztu ebazteak dakarren problematika azerian geratuten da.

Ibarretxe, Madaria eta Gallaoko auzotarrakaz entzute batzarra San Migel eleizan.

IGORRE

18:30ean, Kiñu Gaztetxeko boxeo klaseetako aurkezpene eta lehen klasea. Kiñu Gaztetxean.

URRI LEHENENGOAK 18
BEDIA

Europako Mobikortasun Eguna. 17:30ean, orienting hastapenerako tailer teoriko-praktikoa; 19:30ean, kirol-erronkako parte-hartzaileen talde argazkia eta kirol erronkea lortu dabenentzako opariak.

DIMA

Bariku txiki. 19:30ean, Goroka taldearen *Piratak* erraldoi eta panpinen kale-antzerkia. Frontoi txikitik hasita.

IGORRE

Gorbeia Suzien. 19:00etan, *GR-282 Artzaintzaren naturbidea* dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia Aitor Intxaurreagaz. Kultur Etxean.

URRI LEHENENGOAK 19
ARTEA

Merkartea. 10:00etatik 15:00etara, artisau eta ekoizleen azokea; 18:00etan, II. Andrazkoen Frontenis Txapelketearen finala; 21:00etan, Enbata taldearen *Garbigailua* ikuskizuna; 23:30ean, Luhartz erromeria taldea.

DIMA

Emakume Sortzaileen Azokea. 10:00etatik aurrera, merkadua 50 merkatarigaz; 12:00etan, herri-kirol erakustaldia Irati Astondoa, Uxue Ansoerregi, Aimar Galarraga eta Goiatz Galarragagaz; 18:00etatik aurrera, kontzertuak: Ane Han, Nuzz, Formula 70-80, Jimenos Band (Joaquin Sabinari tributua). Plazan.

Andraizea andra taldearen urtekerea Bilbora. 09:30ean, plazan batu; 10:30ean, armozua La Sinsorgan eta jarduera berezia; 14:30ean, bazkaria Kalderapekon; 19:00etan, buelta.

IGORRE

Inbiu Eguna. 12:00etatik 14:00etara, *Lauburu erronka: euskara loratu* ginkanea eta erronkea; 15:00etan, herri bazkaria eta Eingoren musikea; 19:00etan, Bizkaiko Ingude Txapelketea; gero, Mangual binilo pintxadea sagardao eta txistorreagaz.

ZEANURI

Uribeko San Migel jaiak. 13:00etan, mezea; gero, barauskarria eta txistulariak; 14:30ean, auzo bazkaria; gero, Mus eta Briska Txapelketak.

URRI LEHENENGOAK 20
LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Oroitze Eguna Besaiden (555 m). Hilaren 16an, 19:30etik 21:00etara, izena emoteko aukerea lokalean edo 675 701 359 telefono zenbakira deituta.

ZEANURI

Uribeko San Migel jaiak. 12:00etan, arimen aldeko mezea; 17:00etan, urdia eta txokolatea.

URRI LEHENENGOAK 21
DIMA

18:30ean, Andraizeak antolatutako *Andrantzako indarrezko ariketak* ikastaroaren lehen azalpen eta klase praktikoa. Gimnasioan.

URRI LEHENENGOAK 22
ARTEA

Udal-batzarrak. 18:30ean, Biteriko auzotarrakaz entzute batzarra auzoko

autobus geraleku ondoan; 19:00etan, Ugarte eta Ugartezarreko auzotarrakaz entzute batzarra Ugarteko autobus geraleku ondoan.

URRI LEHENENGOAK 24
IGORRE

18:30ean, *Zer jango dogu bihar? Gaurtik eragin!* Hurreko produktuak bultzatu eta konsumiduteko esperientzien aurkezpene Goierriko Biziola Kooperatiba eta OKT Barundiako konsumitzaile taldearen parte-hartzeagaz. Kultur Etxean.

URRI LEHENENGOAK 25
BEDIA

17:00etatik 19:00etara, liburuen truke azokea; 18:00etatik 19:00etara, Gaztegunera ondo etoria; 19:00etatik 20:30era, Tutupa akademiako musikarien kontzertua.

IGORRE

Garbe eta Mikeleko jaiak. 17:30ean, *KAY Robot* kale-antzerki familiarra; 18:30ean, bits festa; 19:00etan, parriladea AMEren eskutik.

ZEANURI

Gorbeia Suzien. 12:00etan, lasterketearen aurkezpene Bilboko BBK Aretoan; 17:30etik 20:00etara, dorsal banaketea frontoian; 19:00etan, lasterketearen berbaldi teknikoa.

URRI LEHENENGOAK 26
BEDIA

Jauregi-Yeuriko jaiak. 12:00etan, pintxo-potea; 13:00etan, Igel Txapelketea; 14:30ean, paella herrikoa; 16:30ean, zozketak; 17:00etan, Mus eta Briska Txapelketak; 20:00etan, bingoa; 21:00etan, bokatak, txokolatea eta musikea.

DIMA

II. Urkiola-Eskuagatz Rogaine orientazio probak. 10:00etatik 19:00etara, proba luzea (IberRogaine Liga); 11:00etatik 15:00etara proba familiarra; 11:00etatik 13:30era, proba laburra.

IGORRE

Garbe eta Mikeleko jaiak. 18:30ean, Igel Txapelketea; 21:00etan, dj-a.

ZEANURI

Gorbeia Suzien. 07:00retatik 08:30era, dorsal banaketea; 09:00etan, Skyrace lasterketearen urtekerea; 11:00etan, 21K lasterketearen urtekerea; 13:00etatik 16:30era, korrikalarietako bazkaria; 14:30ean, sari banaketea; 16:30ean, In Vño Veritasen kontzertua; 18:30ean, herri-kirolak; 20:00etan, musikea eta jantza Eingo taldeagaz; 23:00etan, eten bako musikea.

URRI LEHENENGOAK 27
AREATZA

Arratiako Gudari Eguna. 14:30ean, ekitaldia; 15:00etan, bazkaria. Plazan.

BEDIA

Jauregi-Yeuriko jaiak. 13:30ean, XI. Pintxo Lehiaketea.

ZEANURI

Gorbeia Suzien. 11:00etan, umeen lasterketarako izen-emotea; 12:00etan, umeen lasterketearen hasikerea.

URRI LEHENENGOAK 29
ARTEA

Elexabeitiko San Migel jaia. 12:00etan, mezea; gero, barauskarria.

IGORRE

Garbe eta Mikeleko jaiak. 12:00etan, mezea; gero, barauskarria eta trikitilariak.

ZEANURI

Altzustako San Migel jaiak. 11:00etan, mezea; gero, barauskarria eta herriko txistulariak. Txokoan.

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

ALOKATZEKO ETXE BILA

Arratian, Igorren balitz hobeto, bere seme-alaba biakaz bizitza barri eta duin bat biziten hasi ahal izateko etxebizitza baten bila nabilen ama naz. Telefonoa: 662 312 325.

ERIZAINAK ETA

GEROKULTOREAK BEHAR DIRA

Erizainak eta gerokultoreak topetan gabiz Dimako egoitzarako. Lanpostuak eskuragarri. Bidali CVa edo WhatsApp bidez jarri hartu-emonetan, edo deitu 627 128 634 telefonora.

TABERNARI EUSKALDUNEN BILA

Axular Herriko Tabernan tabernari bi behar dira astegoienetarako, irailetik aurrera. Interesa euki ezkerro, bidali mezu bat edo deitu 633 530 925 telefonora.

BIZIKLETEA SALGAI

Umeentzat, koloretsua, Dora Esploratzailearen marrazkiekaz. Lauzpabost urteko umearentzat. Errobera txikerrak, aurrean zestillea eta atzean pelutxearentzat kutxa. Egoera eta itxura onean. Eskatu edo ikusteko deitu: 670 825 753.

GARAJE-PLAZEA ALOKAIRUAN

Kotxeak sartzeko garaje-plazea alokatzen da Zeanuriko plazan, Ibarreta auzoan. Interesdunek deitu edo idatzi 634 448 820 telefonora.

BEDARRA EBAGITEKO MAKINEA

SALGAI

Stihl RMA 339 makinea. Bateriaduna da, ez gasolina ezta elektrikoa. 5 urte ditu. Prezioa adostu daiteke. Telefonoa: 661 273 192.

ANTXUME EDO AUMAK SALGAI

Antxume edo aumak salgai, bizitarako edo okelatarako. Deitu: 667 939 370.

ETXEKO GARBIKETAN

LAGUNTZEKO LAN ESKAINTZEA

Etxeko garbiketan laguntzeko lana eskaintzen dogu Dimako pisu txiki baten. Interesa badaukazu, deitu hurrengo zenbakira: 685 766 578.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Areatza Musik and Beer jaialdiko txapela eta boltsea.

Irati Urien (Ubide)
Saioa Zubiaur (Zeberio)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara.

BEGITUk 24 urte eta ehundaka lagun.



94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus



Arratiako AEK

EUSKARA-IKASTAROAK

Matrikula zabalik

- Matrikula zabalik, azterketa ofizialak: A1-A2-B1-B2-C1-C2
- Ordutegi zabalak

Elexalde 10, Igorre - 94 631 56 57 - 607 632 916 - arratio@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

Eusko Jaurlaritzak/HABE

Arratiako udal guztiek diruz lagunduta.

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87
Tel: 609-79-40-54

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel: 94 631 52 83
zekutzejatetxea@hotmail.com

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tel: 94 631 92 00

NAIARA Hartz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel: 94 631 73 65 - VILLARDO

MERKARTEA

IRAILAK 19



10:00–15:00

MERKARTEA AZOKA



18:00

**II. ANDRAZKOEN
FRONTENIS
FINALAREN
TXAPELKETA**
(Carmen Madariaga
Bustinza tenislariari
omenaldia)



21:00

**ENBATA TALDEAREN
“GARBIGAILUA”
IKUSKIZUNA**



23:30

**LUHARTZ
ERROMERIA**

HERRI BAT, MERKATU BAT!